



BOB EDME
Joan den Aberri Egunean Abertzaleen Batasunak antolatuta Maulen egindako manifestazioa.

Batasunaren korapiloa

AB-KO JOERAK. Batasunaren eztabaidak ABko Matalas zein 46en kolektiboaren ofizialtasuna, EMA berrindartzea eta Burujabe sortzea eragin ditu

Hur Gorostiaga | BAIONA

Eztabaida politiko arrunta izatetik, eztabaida minbera izatera pasatu da Batasunaren sorrera, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Lizarra-Garazik abertzaleen arteko elkarlana eta bi urteko su-etena ezaugarri izan bazituen ere, abertzaleendako bertze ekarpen garrantzitsu bat utzi zuen mahai gainean: eraikuntza nazionala; hots, nazio eraikuntza, mundu osoko abertzale ororendako lehen lehentasuna, eztabaida, azken urteetan errealitate eta eritimo ezberdinek bigarren plano batean utzia zuten elementu nagusia.

Arrazoiak arrazoi, Lizarra Ga-

razik berea eman zuen, baina Lizarra berri bat sor dadin, edo Lizarra berri batek finkatutako helburuak, aldi honetan bururaino bete ditzan, ezker abertzaleak eraikuntza nazionala bideratzeko azpiegitura sortzeari ekin dio. LAB, Haika, Senideak-Gureak egituren bategitea edo Koordinaketa eta AABn elkarlana ere ildo horretan konpreni daitezke.

Hego Euskal Herriatik so eginez, nazio mailan antolaturik egoteak, nazio osoa subjektu gisa hartzen duen diskurtso abertzalea eta egitura bera, kontraesanean ez egotea ekarriko du. Arazoak arazo, Batasuna prozesua aski ongi onartu da Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafa-

rroa Garaian. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, bestela gertatu da, nahiz eta bertako sektore handiek egitura nazionalaren beharra ikusi eta Batasuna prozesua Iparraldean ere gara zedin galdegin.

Hauteskundeak tarteko

Ipar Euskal Herriko bizitza politikoan garrantzitsuenak diren herri eta kantonamendu bozen prestaketa garaian heldu da Batasuna prozesuaren eztabaida. Horregatik, Batasunaren sorraren eztabaida ez da nahi bezala eraman. Eta sorrera prozesua bukaera aldera heltzen ari zela, airera atera da guztia.

Baina eztabaidaren uneaz gain —Batasunako batzor-

de eragileak aitortu du garaia ez zela aproposena—, eztabaidaren edukia da traba sortu duena. Gutxienez bost joera bereiz daitezke. Eztabaidara prestatzeko, EMAtik urrundurik zegoen korrontea egituratu, eta Matalas tendentzia ofizialki jalgi zen Filipe Bidart presoak hauteskundeen biharamunean EGUNKARIAN egin elkarrizketaren bitartez. Matalasek Euskal Herri konfederala du helburu, «Iparraldeko lana, Iparraldeko militante eta erakundeen lana» dela erranik, ABk beto eskubidea izan behar duela dio eta Hegoaldeko ezker abertzalearekin harremanak garatzeari alde bada ere, «sistematikoki bat egin gabe» izatea nahi du.

Ezkerreko Mugimendu Abertzaleak (EMA), azken urtean berantolatu ondoren, «euskal jakobinismoa» salatu zuen Batasuna prozesua hasi bezain laster, eztabaida Hegoaldetik gidaturik zegoela salatuz. Horrez gain Richard Irazustak EMAko kide eta ABko bozeramaileak Argia astekarian adierazi duenez, Batasuna sortzearen kontra dago, «AB zatitzea» eraginen duelako.

Euskal Batasuna, aldiz, egitura gisa desegin bazen ere, ABko iraileko biltzarrean joera modukoa sortu zuten, borroka armatua salatzen zuen 46 sinatzailek mozio bat aurkezturik. Sektore honek berriz bat egin du, Hego

MATALAS

«Iparraldeko lana, Iparraldeko militante eta erakundeen lana da. Eraikuntza nazionalen gure hitza behar dugu»

'BATEGINEZ'

«Estatuek inposatu zatiketen gainetik Euskal Herri osoko ezker abertzaleko egitura sortu behar dugu»

Euskal Herrian bizi den bortizkeria egoeran Batasuna sortzerik nahi ez dutela errateko. Jakes Abeberriren inguruan sortu den taldeak Batasuna Hegoaldeko ezker abertzalearen interes soileri erantzuten dien maniobra dela salatu du.

Beren burua EMA, 46en kolektiboan edo Matalas egituren ikusi ez dutenek, aldiz, Burujabe egitura sortu zuten joan den apirilean, «Batasunaren sorrera goiztiarra» zela argudiatu. Tetsuinguru politikoa ez dute aproposa ikusten. Iparraldeko gizartean egiten den Hegoalde-bortizkeria binomioa dela eta. «Abertzaleen eta Iparraldeko biztanleen artean amildegi handi bat sortuko du, eta ondorioz bertako jakobinismoa indartuko». ABren hauteskunde arrakasta baliaturik Iparraldeko sektore berriak harrapatzeko momentua dela uste dute, eta lortu diren hautetsien bidez fruituak biltzeko garaia. Aitzitik, Batasuna sortuz, automatikoki «abertzaleen zatiketa» sortuko dela uste dute. Burujabek ere badu ABko bozeramaile bat, Jean Noel Etxeberri Txetx.

'Bateginez', Batasunaren alde

Batasuna prozesuaren berri joan den urteko maiatzean eman zitzaion ABri. Alderdi gisa bertan parte hartzea ukatu zuen, baina kideei parte hartzeko askatasuna utzi. Beraz, hastapenetik Batasuna prozesuan parte hartu dute Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ABko hainbat kidek Bateginez penontziaren alde eginez. Hala ere eztabaidan parte hartu ez duten beste hainbat jendeke begi onez ikusi du ere egitura nazionala sortzeari buruzko gogoeta. Ostiralean egitura nazionala probintzia bakoitzeko ordezkarien hautaketan parte hartu zuen, besteak beste, Xabi Larralde ABko bozeramaileak.

«Gutxieneko aldarrikapen eta hauteskunde plataforma izatera mugatu gabe, Euskal Herri osoko ezker abertzaleko mugimendua» sortzea dute helburu.

ETORKIZUNA

ABk ostiralean abiatuko du estrategiaz eztabaida

ABk ostiralean Uztaritzen egingen duen biltzar nagusiaren lehen zatian iragana ukanen dute aipagai. Bigarren zatian, aldiz, estrategiari buruzko eztabaida abiatuko dute. Burujabe, Matalas, EMA eta bestelako 100 abertzalek Batasuna eteteko eskaera egin zioten Batasunako batzorde eragileari. Baina honek Batasuna ekainaren 23an sortuko duela berretsi du eta AB utzi gabe eztabaidan parte hartzeko prest agertu da, Batasuna ABren bilakaera posiblea dela erranik.

Aldi berean, Ipar Euskal Herrian mugatuko du bere ekimen publikoa Batasunak. Sortua izanen bada ere, ibilmoldea, ibiliz finkatzekoa izanen du. ABko eztabaida estrategikoa ez litzateke soilik Batasuna egituraz izanen, Euskal Departamenduaren borroka, AB ezker ala eskuin kokatzen den eta bertze hainbat mintzagai baitaude. Kidetza bikoitzaren gaiak (AB-Batasuna), jadanik bazterrak harrotuak ditu ere. Jakes Abeberriren arabera, ABk eztabaida bukatu eta Batasunaren ildo ez segitzea erabakiko balu, kidetza bikoitza ez litzateke onargarria «strategia kontrajarriak» dituztelakoan. Batasunak aldiz, «ABk oraingo ildoan segitzen badu bateagarri» izan daitezkeela adierazi du.